

ABENDUAK 1 DICIEMBRE MOBILIZAZIOAK

Hainbat erakundek erabaki dugu aldarri multzo bat osatu eta horiek lortzeko mobilizazio bateratuari ekitea. Bat gatoz garrantzi handiko unea dugula hau. Europar funtsak Damoklesen ezpata bilakatzen ari dira, eta hori inola ere ezin dugu onartu. Hasieratik argi geratu zen funtsen truke galdegingo zizkigutela doikuntza sozialeko neurriak eta austeritatezko aurrekontu-politikak. Urte bukaerarako hartu nahi dituzten erabakien arabera izango dira etorkizuneko gure bizi- eta lan-baldintzak. Lan erreforma eta pentsioen erreforma ezinbesteko baldintza dira beltzez jantzitako gizon berriek argi berdea eman diezaizoten espainiar Estaturako funtsen transferentziaren bigarren zatiari. Eta ez batean, ez bestean, inongo kasutan ez zaio erantzunik ematen Euskal Herriko mugimendu sindikal eta sozialen eskariei.

Pentsioen erreformarako lege-proiektuan erretiro aurreratuan murrizketak ezarri nahi dira; ez da inola ere bermatzen 1.080 euroko gutxieneko pentsiorik, ez eta genero arrakala gainditzen ere. Gutxi dakigu, baina dakigun horren argitan aurreko urteetan ezarritako murrizketak ez dira indargabetuko, eta pentsio-sistema publikoa ere ez da sendotuko. Lan erreformaren nondik norakoak are ilunagoak dira, baina ez dirudi Euskal Herrian gure lan-hitzarmenak negoziatzeko eskubidea bermatuko denik, edota indargabetuko direnik aurreko erreformen funtsezko puntuak, esaterako kaleratzeko erraztasuna. Erreforma hauek baldintzatu nahi ditugu, eta mobilizazioa da horretarako hautatu dugun bidea.

Bestalde, Hego Euskal Herriko erakundeek ez dute ezer jakin nahi ereduaren oinarritzko zutabeak aldatzeko aukeraz, esaterako, osasun, hezkuntza edo zaintza sistema publikoari dagokionez, edo premiazko erreforma fiskalari ekiteaz, zeinak zeharo gehituko dituen enpresa- eta kapital-errentek ordaintzen dituzten zergak, batik bat enpresen etekinek, ondareak eta fortuna handiek. Confedebek eta CENek erabakitzen dituzte politika hauek.

Aurrekontu-politika zeken jarraipenak, zerbitzu publikoen pribatizazioaren aldeko politikak eta gizarte-prestazioak areago murriztu nahiak (horixe da EAEko DSBEaren erreformaren xedea), krisian dagoen tokiko merkataritza babesteko neurririk ezak... honek guztiak adierazten du 2008ko krisialdian eta koronabirusaren pandemian zehar ikasitakoa ez dutela aintzat hartu nahi. Halaber, krisi sanitarioaren kudeaketak agerian utzi du sistema autonomikoa zein hauskorra den: Nahi duenean, Estatuak bere irizpideak inposatzeko ahalmena du.

Esan bezala, guk mobilizatzeko erabakia hartu dugu. Deialdi hau bultzatzen dugun sindikatuok beharrezko deritzogu bat egiteari, esaterako Euskal Herriko Pentsiodunen Mugimenduak deitutako azaroaren 13ko mobilizazioak babestuz.

Greba orokor baten erreferentzia ere aipatu izan dugu; honi buruz bakoitzak bere iritzia eman izan du. Gaur kalera gatoz esateko beharrezko jo dugula testuinguru honetan abenduaren 1ean mobilizazio egun bat deitzea. Egundorretan kalera irtengo dugu, goizean Hego Euskal Herriko lau hiriburuetan eta arratsaldean eskualdeetan, gure aldarriak defenditzeko:

**LAN, PENTSION ETA BIZI BALDINTZA DUINEN ALDE
LAN ETA PENTSION ERREFORMEI EZ
BIZI DUIN BATERAKO BURUJABETZA**

Dei egiten diegu gizarte-mugimendu guztiei gurekin bat egin dezaten eta elkarrekin lan egin dezagun abenduaren 1eko mobilizazioa ahalik zabal eta handiena izan dadin.



ABENDUAK 1 DICIEMBRE IMOBILIZAZIOAK

Distintas organizaciones hemos acordado una serie de reivindicaciones e iniciar una dinámica de movilización conjunta para su consecución. Compartimos la importancia del momento. Los fondos europeos se están convirtiendo en una espada de Damocles, algo que es inaceptable. Desde un principio quedó claro que a cambio de ellos se iba a exigir tomar medidas de ajuste social y políticas presupuestarias de austeridad. De aquí a finales de año pretenden tomar decisiones que van a determinar nuestras condiciones de vida y de trabajo futuras. La aprobación de la reforma laboral y de la reforma de pensiones son condiciones sin las que los nuevos hombres de negro no van a dar luz verde al segundo tramo de transferencias de los Fondos al Estado español. Y en ninguno de los dos casos se está dando respuesta a las demandas de los movimientos sindicales y sociales de Euskal Herria.

En el proyecto de ley de reforma de las pensiones se recortan las jubilaciones anticipadas y, lejos de garantizar unas pensiones mínimas de 1080 euros o acabar con la brecha de género, lo poco que se sabe apunta a medidas que no derogarían los recortes impuestos años atrás ni reforzarán el sistema público de pensiones. El contenido de la reforma laboral es una incógnita aún mayor, pero nada apunta que se vaya a garantizar nuestro derecho a establecer libremente nuestros convenios en Euskal Herria ni a derogar las reformas anteriores en aspectos clave como la facilidad para despedir. Queremos condicionar estas reformas, y la movilización es la vía por la que vamos a transitar para ello.

Por su parte, las instituciones de Hego Euskal Herria no quieren ni oír hablar de cambiar el modelo en cuestiones esenciales, como la salud, la educación o el sistema público de cuidados, o en abordar una reforma fiscal urgente, que aumente de manera importante los impuestos a pagar por las rentas empresariales y del capital, en especial por los beneficios de las empresas y por el patrimonio y las grandes fortunas. Confebask y CEN son quienes marcan estas políticas.

La continuidad de las políticas presupuestarias rácanas, la apuesta por la privatización de los servicios públicos y por unas prestaciones sociales que incluso se pretenden recortar (como ocurre con la propuesta de reforma de la RGI en la CAPV), la ausencia de medidas para proteger un comercio local en crisis, muestran la negativa a pasar a limpio las enseñanzas de la crisis de 2008 y de lo que ha ocurrido con la pandemia del coronavirus. Asimismo, la gestión de la crisis sanitaria ha dejado patente la fragilidad del sistema autonómico: el Estado tiene la potestad de imponer sus criterios cuando estime oportuno.

Como hemos indicado, nuestra apuesta es la movilización. Las organizaciones sindicales que impulsamos este llamamiento consideramos necesario confluir, como hemos hecho al apoyar las movilizaciones del 13 de noviembre convocadas por el Movimiento de Pensionistas de Euskal Herria.

También hemos venido marcando la referencia de una posible huelga general, sobre la cual nos hemos ido pronunciando de manera individual. Hoy salimos a decir que en ese contexto vemos necesario convocar una jornada de movilizaciones el día 1 de diciembre. Ese día vamos a salir a la calle, tanto a la mañana en las cuatro capitales de Hego Euskal Herria como a la tarde en las distintas comarcas, para defender nuestras reivindicaciones:

**LAN, PENTSIO ETA BIZI BALDINTZA DUINEN ALDE
LAN ETA PENTSIO ERREFORMEI EZ
SOBERANÍA PARA UNA VIDA DIGNA**

Hacemos un llamamiento al conjunto de organizaciones sociales a sumarse a este llamamiento, y a colaborar activamente para que la movilización del 1 de diciembre sea lo más amplia e importante posible.